



DEPARTAMENTUKO KAKTUSEK BERTAN DIRAUTE



03

EDITORIALA

04

HAUTESKUNDEAK

Nafarroa Garaiko Hezkuntza Publikoan lehen indar izatera pasatu gara

06

0-3

Feliz año nuevo

07

MARIAN ETXARRI

Marian Etxarri. Recuerdo y homenaje

08

KLIMA LARRIALDIA ETA ESKOLAK

Klima larrialdia: eskolak moldatu

10

PAI ESTABILIZAZIOA

Estabilización docente a la carta

11

LAN OSASUNA

Ikasturte berria, betiko gainzama

12

EAE

EAEko zerbitzu publikoetan %85eko ordezkaritza dugun sindikatuok grebara deitu ditugu bertoko 150.000 langileak

14

LGTBIQ+

Genero bitartasunari aurre egin diezaigun eskolan

16

IDAZKARITZA FEMINISTA

Zaintza bizimodu duin baterako oinarria!

17

EILASTASUNA

Proiektuak

18

MUGIMENDU SOZIALAK

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatu eta gobernu ituna salatzen mobilizazioak _ AHTren aurkako bizikleta martxa

19

HITZ ETA LAPITZ

20

HAN-HEMENKA

Transgresioa irakasgai. Hezkuntza askatasunaren praktika gisa _ Juan Larreta Larrea. El compromiso personal y familiar de un maestro represaliado _ Bidean. Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogo



POLÍTICA CACTUS EN EDUCACIÓN

El denominado nuevo Gobierno *progresista* de Navarra ha nombrado consejero de Educación una vez más a Carlos Gimeno. Un personaje que se ha caracterizado por la imposición de sus políticas sin negociar absolutamente nada con los sindicatos y, supuestamente, en contra del criterio del resto de fuerzas que integran o apoyan al Gobierno. Un Gobierno de coalición, basado en el reparto impúdico de poltronas entre los partidos, y en el que la educación queda a merced del PSN y del sempiterno *sottogoverno* creado a imagen y semejanza de UPN.

Este gobierno se ha caracterizado por sus políticas euskarafóbicas: boicot a los modelos D de Lezkairu y Lerin, la no implantación del euskera en los estudios artísticos, la reducción de los grupos de euskera en la EOI de Iruñea, la política de reducción de alumnado en el modelo A en cada cambio de etapa, el acoso que sufre el profesorado de modelo D en algunos centros del sur de Nafarroa, la escasa oferta de plazas de estabilización en modelo D, la pírrica oferta de formación para el profesorado en euskera, la no creación de nuevas escuelas infantiles del gobierno que cubran la demanda en euskera, la desnormalización absoluta del euskera en el Departamento de Educación, etc. El régimen supremacista lingüístico español permanece incólume en Nafarroa, mientras se producen cambios en el uso de lenguas en el Congreso, y se atisba la oficialidad del euskera en la Unión Europea.

Prueba de la poca coherencia del gobierno de coalición es que en el acuerdo programático 2019-23 no figuraba la Ley del PAI (ahora figura en los "desacuerdos"), pero el PSN la sacó adelante con Navarra Suma. EH Bildu y Geroa Bai defendían en sus programas electorales la derogación de la Ley del PAI. Pero esta no se ha acordado en dicho documento, pese a que Geroa Bai, EHBildu, Podemos e Izquierda-Ezkerra votaron en contra de la Ley del PAI (19 parlamentarias que sostienen al gobierno y 11 del PSN). Esto muestra a las claras la patente de corso que tiene el PSN para hacer lo que le venga en gana y lo cínico de las críticas de los partidos que sostienen a dicho gobierno. La palabra "progresista" ha devenido en un disfraz de políticas regresivas y en una fórmula anestésica para contener la respuesta social. ■

El Gobierno ha incumplido el Pacto para la Mejora de la Educación Pública de Navarra. Ahora sostienen que debe actualizarse. Antes debería cumplirse en su totalidad y mejorarse con las reivindicaciones de la mayoría sindical: bajada lineal de ratios, estabilidad del personal, recuperación del poder adquisitivo y eliminación de la sobrecarga. No consta la negociación a mantener con los sindicatos y únicamente la movilización les obligará a aceptar nuestras reivindicaciones.



Joera eskuindarrak eta euskarafobikoak bere horretan dirau eta, deus aldatzen ez bada, okerrera eginen du legegintzaldian, ez baitu inolako aldaketa garrantzitsurik iragartzen PSOEn inguruko ezkerreko indar parlamentarioen satelizazioak. Hori gutxi balitz, Europako Batzordeak gastua mugatzea eta doikuntza fiskala ezarriko ditu beste behin, eta horrek esan nahi du murrizketak zerbitzu publikoetara iritsiko direla, planeta guztiari eragiten dion krisi ekosoziala sakontzearekin batera. Beraz, aurre egiteko prekarietateari, pobretzeari, supremazismoari eta gainzamari, ezinbestekoa da politika kaktusaren arantzak kentzea, eta basamortua lur emankor bihurtzea.

Nafarroa Garaiko Hezkuntza Publikoan lehen indar izatera pasatu gara

STEILAS hezkuntza sindikatua da lehen indarra Nafarroa Garaiko irakasleen artean, pasa den maiatzean izandako hauteskundeen ondotik: 2019an 11 ordezkari izatetik 2023an 15 edukitzera igaro gara.



Nafarroako hezkuntza publikoan sindikaturik bozkatuena izatera pasatu gara, 28 urtez bigarren indarra izan eta gero.

Nafarroa osoan parte-hartzea % 50,82koa izan da (10.743 irakasletatik 5.460k bozkatu dute). 2015an % 48,87koa izan zen, eta 2019an 52,13koa.

42 mahaitatik 13tan **sindikatu bozkatuena izan gara** (Altsasu, Lizarra, Doneztebe, Lesaka, Zizur, Atarrabia, Noain, Sarriguren, eta Iruñeko Sanduzelai, Mendillorri, Hezkuntza Departamentua, Buztinxuri eta Julio Caro Baroja mahaietan).

Beste 13tan **bigarren indar bozkatuena** (Lodosa, Burlata, Barañain, Leitza, Lekaroz, Pirinioa, Irurtzun, Gares, Lekunberri, Amaiur eta Iruñeko Txantrea, Gurutzeko plaza eta Arrotxapea).

Erriberan azken 10 urteetan 8 bozka izatetik 152 izatera pasatu gara (duela lau urte 42).

STEILASek lortu zuen ordezkartzarik orekatuena, eskualde guztiak gogoz landu genituen eta gorakada horretan eragin zuen etengabe salatzeak

eskola segregazioa, langileen ezegonkortasuna, PAIren desegokitasuna edo 0-3aren bazterketa Hezkuntza Departamentuan, baita lan baldintzen inguruan egindako bi grebek ere.


Lortutako arrakastak hauspotu ditu gure lan ildoak eta kementsu eutsiko diogu gure programari. Programan gure aldarria Euskal Eskola Publikoa, klase borroka ardatz harturik. Irakasleonek eguneroko arazoei kalean zein mahai ofizialetan proposamenekin eraginez eta soluzioak emanez jarraituko dugu, bere burua "aldaketa"ren gobernu izendatu baina hezkuntzan alfonbrarik altxa ez duen 3. gobernu honen gestore politikoei aurre eginez. Ausardiaz jokatzeko garaia da gobernu atzerakoi eta inposatzaileei aurre egiteko.

Kalean eta ikastetxeetan jarraituko dugu borrokatzen, lan baldintzen egiazko hobekuntza erdiesteko.


STEILAS bozkatu zenuten guztioi bihotz-bihotzez eskerrak eman nahi dizkizuegu, gure proiektua sendotu duzelako. Zuekin eta zuentzat tinko lanean jarraituko dugu! ■



Hauteskunde sindikalak 2023. Nafarroako irakaskuntza publikoa Elecciones sindicales 2023. Enseñanza pública navarra



Delegatu - Delegadas/os



El sindicato educativo **STEILAS** es la primera fuerza entre el profesorado de la Alta Navarra, tras las elecciones del pasado mes de mayo: hemos pasado de 11 representantes en 2019 a 15 en 2023.

Seguiremos luchando en la calle y en los centros educativos para conseguir una mejora real de nuestras condiciones laborales.

Queremos agradecer de todo corazón a quienes votasteis a **STEILAS** por seguir consolidando nuestro proyecto.

¡Seguiremos trabajando firmemente con y para vosotras!



Feliz AÑO NUEVO

En las escuelas los años van por curso y por ello es momento de felicitar el año, un año nuevo que da comienzo a una nueva legislatura política.

Una nueva legislatura política con los mismos partidos que constituyendo un Gobierno antiprogresista, que sustenta una política que protege los servicios privados en detrimento de los servicios públicos, de la educación pública.

El "nuevo" consejero de educación Carlos Gimeno Gurpegui ha demostrado que solo hará mejoras en el Primer Ciclo de Educación Infantil a regañadientes y forzado por la revolución amarilla liderada por la Plataforma 0-3 de Navarra.

En el pasado reciente:

Ante la posibilidad de hacer una Ley Integral para Primer Ciclo de Educación Infantil, opta por un acuerdo. La opción menos garantista.

Ante la posibilidad de bajar la masificación en las aulas, establece "refuerzos pedagógicos" que pasan su jornada laboral, de tres horas, apagando fuegos en las escuelas.

Ante la posibilidad de equiparar los sueldos de las educadoras infantiles, empezamos el curso sin equiparar los salarios a las escuelas infantiles del Departamento de Educación y recordando a

los ayuntamientos el compromiso adquirido para mantener la subida salarial que tanto costo conseguir.

Ante la posibilidad de gestionar las escuelas dependientes del Departamento de Educación en las mismas condiciones que el 3-6, acoge solo la titularidad de las escuelas. Ya que las condiciones laborales de estas docentes no se tratan en la mesa sectorial de educación y sus derechos laborales se defienden junto con el resto de la administración núcleo.

Ante la posibilidad de abrir un debate sobre la gestión común y pública del ciclo con los ayuntamientos, con la Plataforma 0-3 de Navarra con los sindicatos y con todos los partidos políticos y para rehacer, acoger y proteger la etapa 0-6. Plantea una insuficiente subida salarial hasta el 2024.

Ante la posibilidad de acordar un acuerdo programático que enfatice la dignificación del ciclo 0-3 y defienda los derechos de la infancia a una educación pública, gratuita y universal, la firma del acuerdo programático baja las expectativas del último acuerdo.

STEILAS exigirá a la clase política la calendarización y ejecución de todos los acuerdos que se hagan para la mejora del ciclo 0-3. Seguirá exigiendo al servicio 0-3 la materialización de la verdadera esencia del recién estrenado currículum de la etapa 0-6.

Insistiremos en ser las interlocutoras de las docentes en el Departamento de Educación, en la mesa sectorial de educación, y seguiremos defendiendo el derecho a estudiar en euskera reivindicando una política lingüística respetuosa con los dos idiomas que coexisten en Nafarroa.

La clase política es la responsable de crear foros de debate y de decisión con todos los agentes implicados en este ciclo, que se inviertan recursos económicos para reorganizar y establecer la supervivencia de un ciclo atacado y menospreciado y por un futuro incierto si no se toman medidas para protegerlo con políticas éticas, demográficas, feministas, ecologistas y educativas. ■



PSNren politika eskuindarrak babestu dituzten alderdiak, ausartuko al dira benetazko politika aurrerakoiak egiten



Marian Etxarri.

Recuerdo y homenaje

La imagen que acompaña a este escrito corresponde a quien fue cofundadora de **STEILAS**. Para quienes le conocimos, es un apunte –sintético– de su manera de ser: positiva, alegre, afable, cariñosa y con un punto de ironía que utilizaba sabiamente. Nacida en 1928, nos dejó el pasado 8 de marzo.



Mujer adelantada a su tiempo. Su andadura escolar estuvo marcada por el golpe de estado franquista. El inicio de la misma tuvo lugar en la primera ikastola creada en Iruñea en 1931. Tras estudiar Magisterio, ejerció su trabajo en varios pueblos de Nafarroa. A mediados de 1960 se especializó en Pedagogía Terapéutica y dedicó sus mejores esfuerzos profesionales –muchos– a quienes más ayuda necesitaban. Participó, también, en la puesta en marcha de las innovaciones educativas aportadas por el movimiento de renovación educativa denominado ADARRA.

En aquella época no resultaba fácil ir contra el modelo franquista de enseñanza, ni pelear por

mejorar las condiciones laborales del profesorado. Tengamos en cuenta que, cuando M^a Ángeles había acumulado varios años de antigüedad, un grupo grande de actual personal jubilado estudiaba magisterio; pongamos, por ejemplo, en 1972. Tuvo un gran prestigio en numerosos ámbitos entre quienes trabajaban en la enseñanza pública; y, para muestra, un botón. La Junta Superior de Educación era un organismo propio cuyos antecedentes se remontan a una decisión de las Cortes del Reino de Navarra de 1817 y 1818. Tuvo, entre otras atribuciones: “La formación de un reglamento para la dirección metódica de las Escuelas de Primeras Letras de Navarra, la asignación de salarios para “los maestros”, la forma y modo de examen de quienes quieran dedicarse a tan honroso y dedicado ejercicio y *todo cuanto conduzca y tenga relación con la enseñanza y educación pública*”. En los pueblos se establecían Juntas subordinadas a la anterior.

En los años 80 del pasado siglo se eligió, por primera vez mediante votación directa, a quienes representarían, en dicho Organismo, a las maestras y maestros de la red pública. Era la primera ocasión en que nuestro sindicato podía demostrar su grado de influencia en el sector. M^a Ángeles obtuvo más de novecientos votos y ejerció la representación durante ocho años. En ese momento, la Junta mantenía su carácter ejecutivo en atribuciones como decidir la plantilla de los Centros; en más de una ocasión, el BOE retrasó su publicación hasta que la Junta oficializara su decisión. Hoy en día, aún manteniendo su nombre primitivo, es un consejo escolar más, de carácter meramente consultivo. En definitiva, M^a Ángeles representó, con mucha antelación y naturalidad, las características que dan personalidad al actual **STEILAS**: defensora de lo público y lo propio, internacionalista, feminista, de todas y para todas. ■

M^a Ángeles, ejemplo de mujer y maestra en la más positiva de las acepciones.

Te recordaremos durante largo tiempo con mucho cariño.



Klima larrialdia: eskolak moldatu



Behar den energia ikastetxean bertan sortzea

Ikastetxe asko eta asko aspaldi eraikiak dira; ia denak oso urruti daude energetikoki autosufizienteak izatek: batetik, elektrizitate gehiena edo guztia sare elektrikotik eskuratzen dute; bestetik, berokuntzarako erregai fosilak erabiltzen dituzte. Ikastetxe berri gutxi eraikiko dira aurrerantzean eta, beraz, zaharrak birgaitu beharko dira. Birgaitzea zailduko du hornidurretan dauden arazoak eta prezioen garestitzeak. Hortaz, ingurune hurbileko alternatibak bilatu beharko dira, ahalik eta ingurumen-eragin txikiena dutenak eta toxikotasuna saihestuz. Ikastetxeak tokian tokiko energia komunitatetan integratuko dira.



Jolastokien birnaturalizazioa

Porlanezko eremu zabalak kendu behar dira; horien ordez, lurzorua berreskuratu behar da, espazio biziak izateko. Talde kiroletan, batez ere futboleant, aritzeko jokaleku artifizialek genero eta adin segregazioa bultzatzen dute. Eremu naturalak onuragarriak dira umeen osasunarentzat, bertan jolas askea errezagoa da eta portaera arazoak gutxitzen dira. Bide batez, klima larrialdiak sortzen dituen arazoak apaltzen laguntzen dute.



Euri ura biltzea

Klima larrialdia dela eta, gero eta ur gutxiago izanen da eskuragarri. Teilatuan eroritako ura ur-tanga batean bildu beharko da, geroago baratzea ureztatzeko eta garbiketara eta komunetan erabiltzeko.



Ur zikinen kudeaketa

Ur grisak baliatzeko hoditeria moldatu behar da. Garbitzeko produktu toxikoak ez badira erabiltzen, ureztatzeko erabil daitezke. Ur beltzak gutxitzeko, komun lehorrak jar daitezke eskolaren egituraren, tamainaren eta kokalekuaren arabera.



Hondakin solidoak desagerraraztea

Sortuko den zabor organiko guztia bertan edo inguruan konpostatuko da, baratzean edo inguruko baratze komunitarioetan lurra ongarritzeko. Erabilera bakarreko ontziak debekatuko dira. Hondakinak ez sortzeko irizpidea beti aintzat hartuko da edozein erosketa egin baino lehen. Bidenabar, lehenetsiko da hurbilekoak izatea eta baldintza duinetan sortuak.





Baratzea

Helburu hezigarria izanen du garaian garaiko barazkiak egiteko. Biozidarik gabe landuko da eta bildutakoa eskolako jantokian kontsumituko da. Tamainaren arabera, familien eta auzokideen parte-hartzea sustatuko da. Eskolan toki nahikorik ez badago, inguruko baratze komunitario batean parte hartuko da.



Eskola jantokia

Catering enpresen eredia gainditu behar da. Eskola guztietan sukaldea jarriko da eta elikagaiak bertan prestatuko dira: hurbilekoak, garaian garaikoak eta ekologikoak. Jantoki zerbitzua publikatu behar da eta baldintza duinak sortu langileentzat. Sukaldea eta jantokia tresna hezigarriak izanen dira. Tokian tokiko ekoizleen eta kontsumitzaileen sareak garrantzitsuak dira, baina ikasle guztiei kalitatezko elikagaiak bermatu behar zaizkie; jantokiaren kudeaketa ezin da egon bakarrik familien eskuetan, Hezkuntza Departamentuak antolatu behar du. Elikadura burujabetza ere eskolaren zeregina da.



Eskola garraioa

Eskola garraio motorozitua debekatu behar da hiriguneetan haur hezkuntzan eta derrigorrezko hezkuntzan, salbuespenak salbuespen. Auzoko edo herriko eskola publikora oinez edo txirrindulaz joan behar da, familiakideek edo begiraleek lagunduta, behar izanez gero. Hiriguneetako eskola garraioa, pribatua edo kolektiboa, arriskutsua da oinezkoentzat, eskola segregazioa suspertzen du eta kutsadura handia sortzen du, maiz autobus zaharrenak erabiltzen direlako. Landa eremuko eskola kontzentrazioetan baizik ez da ezinbestekoa garraio publikoa. Herrietako eskola txikiak berriz irekitzea aztertu behar da. Eta garraio publikorik ez?

Adaptación de las escuelas a la crisis climática

La crisis climática se agrava y las escuelas deben adaptarse a ella y tratar de mitigar los efectos adversos que provoca. Para ello es imprescindible acometer cambios profundos en los edificios y el funcionamiento escolar en los siguientes ámbitos: autonomía energética, renaturalización de patios, recolección de aguas pluviales, gestión de aguas fecales y de residuos sólidos, huerta, comedor y transporte.



Estabilización docente a la carta



A pesar de que la interinidad en Navarra era del 51% hace apenas dos cursos, y de que Europa había impuesto una drástica reducción hasta el 8%, una vez que finalice el proceso de estabilización docente llevado a cabo por el Departamento de Educación solo se habrán funcionarizado 766 plazas, número extremadamente escaso si tenemos en cuenta que cada año se jubilan en nuestra comunidad alrededor de 350 docentes...

Aunque llamativo, este no es el único dato significativo del proceso sino que podemos extraer varias conclusiones que echan por tierra los discursos triunfalistas de este nuestro nue-viejo gobierno:

- El 63% del personal que se ha funcionarizado en Navarra no estaba trabajando en esta comunidad, por lo que con toda seguridad volverá a su lugar de origen en el próximo concurso de traslados estatal dejando de nuevo las plazas a cubrir por el personal interino.
- Especialidades con una alta tasa de interinidad como Educación Infantil, Educación Primaria, Orientación Educativa, Educación Física, Música, Biología, Geografía e Historia o Francés no han salido convocadas al proceso o han salido con muy pocas plazas.
- Sin embargo, la estabilización ha llegado al amplio abanico de especialidades docentes pero con tan solo una única plaza, manteniendo el agravio comparativo que supone entre compañeras de una misma especialidad con baremos muy similares.
- Muchas de las plazas que cumplían los requisitos marcados en la convocatoria no han salido en una suerte de diferenciación incomprensible, insostenible y carente de transparencia por parte de la Administración.

- El grueso de las plazas ha ido destinado a los Programas de Lengua Extranjera en un cuerpo propio que no existía hasta la fecha y que obliga a las personas a mantenerse en ese tipo de plazas, especialidades, modelos e idiomas sin que tengan posibilidad de reubicarse en otras listas a las que pertenecían.
- El resto de plazas del cuerpo de magisterio también se ha adjudicado a los programas lingüísticos en unas oposiciones "blandas" de dos pruebas sin exposición de idioma que contrastan con el doble de exámenes a las que se enfrentará el profesorado del resto de especialidades.
- La casi totalidad de las plazas de Educación Secundaria salen a concurso-oposición, obligando a todo el profesorado a volver a hacer exámenes para mantener una posición digna en las listas y desestabilizando el orden interno de los centros.

Con estos resultados tan arbitrarios como injustos para una buena parte del profesorado, el Departamento debería aprovechar la oportunidad brindada por el Real Decreto-Ley 6/2022 y convocar un nuevo proceso de estabilización en el que no se premie solo a una sola parte de la plantilla docente sino que se haga justicia con el profesorado que lleva años dedicando su labor de forma consolidada y ejemplar.

Nafarroako Gobernuak irakasleak PAIen gatibu edukitzeko duen obsesioak ezin du hankaz gora jarri Nafarroako hezkuntza sistemako gainerako langileen egonkortasuna; izan ere, Departamentuari gustatu ala ez, irakasle gehienek bertako hizkuntzetan irakasten baitute oraingoz, eta hoientzako atzerriko hizkuntza ez da ez lehentasuna ezta beharra ere.

La obsesión del Gobierno de Navarra por mantener al profesorado cautivo en el PAI no puede tirar por tierra la estabilidad laboral del resto de los y las trabajadoras del sistema educativo en Navarra porque, le guste o no al Departamento, el grueso del cuerpo docente en la comunidad sigue siendo profesorado de áreas específicas para las que una lengua extranjera no es ni una prioridad, ni una necesidad competencial. ■



IKASTURTE BERRIA, BETIKO GAINZAMA

Irakasleen gainzama arintzeko, Hezkuntza Departamentuak noiz emango ditu baliabideak ezartzen dituen programak behar bezala aurrera ateratzeko?

Ez al dute ikusten Lan Arriskuen Prebentzioko arduradunek irakasle onen osasuna arriskuan dagoela?

Beste ikasturte berri bat hasi da eta berriz ere urteroko egoera errepikatzen da: irakasleek formakuntza ordu luzeak egin behar ditugu, ratio altuegiak dituzten geletan aplikatu behar ditugu ikasleak erdigunean jarriko dituzten metodologiak, burokrazia lan gero eta konplexuagoak egin behar ditugu; baina ez hori bakarrik, baita ere hezkidetzaren eta inklusio programak ezarri behar ditugu hauen prestakuntzarako inongo ordurik izan gabe.

Programa hauek ezartzeak irakasleengan dakarren gainzama urteroko afera da, eta etengabe salatu izan dugu, besteak beste joan den ikasturtean izan ziren bi grebetan. Departamentuak propaganda egiten du ezartzen dituen programekin, zeinetan hezkidetzaren eta inklusioa lantzen diren. Programa hauek zalantzarik gabe beharrezkoak dira eskola hezkidetzarekiko, inklusioa eta kalitatezko erakitzeko, baina benetan eraginkorrak izateko baliabideak behar dira, eta ez dira orduak ematen ari eta irakasleengan gainzama handia sortzen dute.

Programa hauen arduradunek badute beraien ordutegian ordu bat astean koordinazio bilerak gauzatzeko. Bileren hauek programak aurrera ateratzeko egingo diren ekintzak edo jarduerak erabakitzen dira, baina gero hauek diseinatzeko eta programatzeko ez da ordurik ematen, eta hauek sartuta dauden irakasleek lan guztia lanorduetatik kanpo egin behar dute, gainontzeko irakasgaiak prestatzeko edota azterketak zuzentzeko duten denboran, horrek dakarren gaizamaren eta denbora faltaren ondorioekin: nekea, estresa, antsietatea, etab.

Esan bezala, ratioak oso altuak izaten jarraitzen dute. Aurreko legegintzaldian Gobernuan izan ziren alderdi politiko guztiek ratioen jaitsiera zeramatzen haien programetan, baina gobernuan egon diren bitartean ez dute zipitzik ere egin ratioak gutxitzeko, nahiz eta sindikatuok gai honekin jo ta ke ibili garen, bai parlamentuko lan saioetan baita greba egunetan.

Gainera, "egonkortze" prozesuaren lehen zatia pasata ere (merezimendu lehiaketa), interinitate tasak izugarri handia izaten jarraitzen du, prozesu faltsu horrek ez baitu urteetan hezkuntza lanean aritutako irakasle guztiak finkatu, eta egonkortasun falta horrek ez dio mesederik egiten ez ikastetxeen funtzionamenduari ez irakasle interinoen osasunari.

Bada garaia Lan Osasuneko Prebentzioko atalak irakasleok dugun gainzama ganoraz hartzeko eta gure osasun mentala zaintzeko neurriak ezartzeko. ■

En este curso que acaba de empezar seguimos con largas horas de formación, ratios excesivas para aplicar metodologías que atiendan la diversidad del alumnado, y trabajos burocráticos cada vez más complejos. A esto se le suma la falta de horas para llevar a cabo programas de coeducación e inclusión, programas que el profesorado tiene que preparar en su tiempo libre.

Todo esto supone una sobrecarga y falta de tiempo que se traduce en cansancio, estrés, ansiedad, etc. Ya es hora de que el servicio de Prevención de Riesgos haga honor a su nombre y se preocupe por la salud mental del profesorado.



EAEko zerbitzu publikoetan %85eko ordezkariak dugun sindikatuok grebara deitu ditugu bertoko 150.000 langileak

ELA, LAB, CCOO, **STEILAS**, SATSE eta ESK sindikatuok, Madrilen ordezkariak duten euskal alderdiei soldata eta enplegua hemen adostu ahal izatea ahalbideratu dezatela eskatzen diegu. Eusko Jaurlaritzari, aldundiei eta udalei, erosahalmena bermatzea eta behin behinekotasuna %8ra murriztu arte enplegua kontsolidatzea eskatzen diegu.

ELA, LAB, CCOO, **STEILAS**, SATSE, eta ESK sindikatuok (ordezkariak sindikalaren % 85etik gora) urriaren 25ean eta abenduaren 19an bi greba egun egitera deitu ditugu EAEko sektore publikoko langile guztiak. Azken urteetan zerbitzu publikoen kalitateak okerrera egin du nabarmen, eta lan-baldintzak okertu egin dira. Horrek zuzenean eragiten du herritarrei eskaintzen zaien zerbitzuaren kalitatean, aurrekontu-esleipenarekin eta inbertsio politikekin zuzenean lotuta daudenak:

- Hamarkada luzea daramagu, eremu publikoko hitzarmen kolektiboak eta akordio arautzaileak berritu gabe. (Mahai Orokorra, Osakidetza, Hezkuntza, Administrazio Orokorra, udal eta foru administrazioan...).
- Behin-behinekotasun-tasak onartezinak dira.
- Pribatizatzen jarraitzen da, eta dagoeneko 100.000 langile inguru azpikontratatu daude.
- Erosteko ahalmenaren galera metatua %20koa izan da azken hamarkadan.
- Murrizketak, plantilla urriak, plantillen osasun fisikoari eta emozionalari kalte egiten dioten antolaketa neurriak eta erabakiak, besteak beste; lan-kargak handitzea, ordezkariak ez egitea, belaunaldi-erleboaren planifikaziorik eza, osasun-zainketen konplexutasunaren gorakada, egonkortasunik eza, kontziliazio-neurriei heltzeko zailtasunak, ikasleen eta artatu beharreko biztanleen gero eta aniztasun handiagoa, desberdintasun sozialak sortzen dituzten politikak. Horrek guztiak ondorio larriak ditu zerbitzuaren kalitatean.
- Zerbitzu Publikoak eta bertan lan egiten duten langileak benetan euskalduntzeko plangintzarik eta baliabiderik ez dago, zerbitzua euskaraz landu eta eskaini ahal izateko.
- Lan-baldintzak okertzeak eragin handiagoa du emakumeengan. Aipatu behar da, gainera, eremu batzuk oso feminizatuta daudela. Behin-behinekotasun-tasa handiagoa da emakumeen artean, eta lanaldi partzialak orokorragoak dira emakumeak

gehiengoa diren sektoreetan eta/edo kolektiboetan. Gainera, soldata arrakala %25 baino handiagoa da.

→ Pandemiak agerian utzi zituen narriadura horren ondorioak. Hiru urte geroago, egoera hori konpondu beharrean, euskal erakundeek superabita izaten jarraitzen dute mozkin pribatuak gizentzeko: gizarte premiak larriagotzen eta zerbitzu publikoak okertzen diren bitartean euskal gizarteak sortutako 10.000 milioi euro bankuetan gordeta dituzte (2023an diru bilketa errekorra izan da).

Horregatik, ELAk, LABek, CCOOk, **STEILAS**ek, SATSEk eta ESK-k egoera hori lehengoratzeko, zerbitzu publikoen eta horiek ahalbideratzen dituzten pertsonen alde egiteko eta honako erabaki hauek hartzeko eskatu diegu erakundeei eta alderdi politikoei:

Aurrekontuetan

- Estatu aurrekontuetan: soldata publikoak eta enplegu publikoaren beharrak hemen mugarik gabe ezartzea. Oinarritzko legediaz mozorrotutako soldata-mugarik eta birjarpen-tasarik gabe, hau da, oztupoak kentzea.
- EAEko aurrekontuetan: zerbitzu publikoak indartzea, enplegu publikoa sortzea eta kontsolidatzea, lan-baldintzak hobetzea eta galdutako erosteko ahalmena berreskuratzea ahalbideratuko duten aurrekontuak onartzea.

Negoiazio-mahaietan honako neurri hauek adostea:

Soldatak

- %10eko soldata-igoera. Azken bi urteetako erosteko ahalmenaren galera berreskuratzeke eta 2024koa bermatzeko.
- Aurretik galdutako erosteko ahalmenaren gaineko zorra aitortzea eta berreskuratzeke benetako konpromisoa hartzea.

Enplegua

- Pribatizazio berririk ez. Eta jada pribatizatutakoa publikatzeko plana adostu langileen subrogazioa bermatuz.
- Egiturazkoa den ezkutuko enplegua azalratzea eta sortu beharreko lanpostuak adostea.

→ Behin-behinekotasun erreala %8tik behera kokatu, horretarako neurriak hartuz, horrela ez den langile kolektiboetan eta horretarako beharrezkoak diren EPE egutegiak eta orain arte lanean aritu diren langileek lanpostuak kontsolidatzeko izan daitezela adostuz.

→ nposatutako jardunaldi partzialak ezinezkoa dela erabakitzea.

→ Plantillak gaztetzeko neurriak: erretiro-kontratu langile publiko guztientzat baldintza onenetan, Erretiro-primak eta lanaldi-murrizketak berreskuratzea.

Lan-osasuna

→ Lan-kargak murrizteko neurri zehatzak adostea.

→ Formakuntza egokia eta egokitua bermatzea.

→ Langileen ongizate fisikoa eta emozionala bermatzeko arrisku psikosozialen eta arrisku ergonomikoen ebaluazioak egin urtebeteko epean, eta neurri zuzentzaileak adostu.

→ Langile publikoen osasunaren kudeaketan publikotik indartu, mutuen papera gutxituz.

Hezkuntzan ere aldarrikapen asko ditugu; lan-zama arintzeko neurri zehatzak behar dira, zeharo handitu den burokratizazioaren aurrean kudeaketarako lan ordu gehiago islatu behar dira ordutegietan eta era berean, egungo ikasleen errealitateari erantzuteko baliabide gehigarriak behar dira.

Galdu dugun %20ko eros-ahalmena berreskuratzeke uea iritsi da behingoz. Bada baita gure plantilak gazteberritzeko garaia, bai erretiroa aurreratuz bai eta langile guztientzat jardunaldiaren murrizketa erreala gauzatu. Premiazkoa da lanpostuak egonkortzea eta plantilak estrukturalizatzea, hau baita bide bakarra lanpostu suntsiketa saihesteko. Behin-behinekotasun erreala % 8ra jaitea exijitzen dugu.

Hezkuntza sistema osoa euskaldunduko duen hezkuntza politikak abiarazi behar dira.

Hezkidetzeta proiektu erreala behar ditugu ordu kreditu nahikoarekin hornituta, bizikidetzan eta berdintasunean eragiteko.

Eta hau guztia negoziatio erreala baten ondoren, Lan Hitzarmen sektorialetan jasotzea nahiko genuke.

Horregatik guztiagatik, **STEILAS**, ELA eta CCOO sindikatuok urriaren 24ean grebara deitzen ditugu hezkuntza publiko ez unibertsitarioan dauden ondoko sektoreak: irakasleak, heziketa bereziko langileak, sukaldariak eta garbitzaileak.

Euskara

→ Administrazioaren benetako euskalduntzea bermatuko duten planak adostea. Horretarako:

- Lehen aldiz lanpostu publiko bat betetzeko euskararen ezagutza nahikoa ziurtatuko duten langileak hautatu.

- Lanean diharduten langileei euskalduntzeko baliabideak, formakuntza eta baldintzak bermatzea.

Jardunaldiaren murrizketak 32 orduko lan astearen norabidean. Berdintasunerako benetako urratsak ekarriko dituzten genero-arloko neurriak, besteak beste, berdintasun-plan erreala eta eraginkorrak negoziatzea.

ELA, LAB, CCOO, **STEILAS**, SATSE eta ESK sindikatuok langile publikoei urriaren 25eko eta abenduaren 19ko greba deialdiekin bat egiteko deia egiten diegu, baita deitutako mobilizazio eta alde aurreko ekitaldietan parte hartzeko ere. ■



Genero bitartasunari

AURRE EGIN DIEZAI OGUN ESKOLAN

Guztiok sailkatzen gaituzte genitalen arabera, jaio baino lehen, maiz. Eta sailkapen horrek, hein handi batean, markatzen ditu ume jaioberrien itxaropenak, tratua eta eskatuko zaiena. Pertsonak emakumezkoen edo gizonezkoen kategorietan multzokatu ohi dira, eta horrek sekulako arazoak sortzen dizkie.



Intersexualak ditugu, hasteko. Genitaletan ezaugarri maskulinoak eta femeninoak dauzkate eta zaila gertatzen zaie medikuei multzo batean edo bestean sartzea. Sistemak, oro har, ez du onartzen kategoria batean ez kokatzea eta, horregatik, ume sortuberri askori kirurgia sexu zuzentzailea egiten zaie; sarri, irentze gisako zer edo zer. Eskola guztiz bitartzalea ez balitz, gurasoek ez lukete izanzen hainbesteko larritasunik umeak sailkatzeko.

Hurrena, **transak**. Horien sexu sentitua ez dator bat jaiotzean esleitu zietenarekin, oker esleitu ere, genitalak aintzat harturik. Ume horiek, genero identitatearen armairutik ateratzen badira, trantsizioa egiten dute sentitzen duten sexuak izatea lortzeko. Batzuk identifikatzen dira gizonezkoen eta emakumezkoen kategoriekin eta beste batzuk genero identitate ez-bitarra dute. Hortaz, trantsizioak aiseago egiten dira generoaren aldetik hain polarizatuak ez dauden ikastetxeetan eta nerabeek ez dute hainbesteko presioa nabaritzen beraien gorputzak aldatzeko, tratamendu farmakologikoen edo kirurgikoen bidez.

Ondoren, **genero adierazpenaren estereotipoekin bat ez datozenak**. Bitartasunak izugarri markatzen du norberaren genero adierazpidea eta baztertzen ditu eredu maskulino eta femenino hegemonikoetatik aldentzen direnak. Presio bitartzalea kenduta, bakoitzak nahi duen bezala adieraziko luke generoa eta ez legoke inongo oztoporik hori aldatzeko.



Heteroaraua hausten dutenak dira hurrengoak. Gure ikastetxeetan **lesbiana, gay, bisexual, pansexual edo asexual** ugari dago ikasleen artean, baita irakasleen artean ere, eta usu erasorik ez izateko armairuan ezkutatu behar dute. Heteroarauak eredu sexuafektiboa zorrotz kateatzen du eta, horregatik, bitartasunarik gabeko sistema jariakorrak eta ez-polarizatuak heteroaraua suntsitzen lagunduko luke.

Azkenik, **ikasle guztiek** pairatzen dute heteropatriarkatua. Horra: hezkuntzak iraunarazi ohi du sexu eta genero bitartasunaren eta generoen arteko osagarritasunaren diskurtsoa. Horrela, ikasleek gizakien ikusmolde dikotomikoa indartzen dute, eta era berean, betikitzen dira sistema heteropatriarkalaren botere harremanak, bortizkeria matxistaren oinarria osatzen dutenak. Mutilek moldatu behar dute maskulinitatearen eredu menderatzailerara eta neskek aldiz menpeko eredura, baztertuak ez gelditzeko eta jazarpena ez jasateko.

Eskoletan bitartasunari aurre egiteko lan ildoen artean genero gabeko komunak eta aldagelak txertatzea legoke (Haur eta Lehen Hezkuntzako lehen ziklora bitarte genero gabeko komunak eskoletan aurkitzea ohikoa izaten da eta bigarren ziklotik aurrera, komunak mailaka antolatu daitezke), LGTBQ+ irakasle eta familien ikusgarritasuna indartu eskola komunitate osoan, LGTBQ+ gaiak modu transbertsalean Curriculumean txertatu, jolastokien eraldaketa ikuspuntu hezkidetzaitetik eremuak birnaturalizatuz hartu-eman libreak izan ditzaten eskola komunitateko pertsona guztiek...

STEILASek aspaldidanik dihardu pedagogia feministaren bidean. Horren lekuko dira azken urteotan Idazkaritza Feministatik eta LGTBQ taldeak sortutako unitate didaktikoak, gidak eta Aske Izan Koloretan ipuina. Hemendik gonbitea luzatzen dizuegu ikas material hauek erabiltzeko zuen eskoletan bitartasuna eta heteropatriarkatuaren kontra borrokatu eta eskola komunitatea guztion artean eraldatzeko. ■

Luchemos contra el binarismo de género en las escuelas

Una escuela no binarista tendría efectos muy positivos en la lucha contra la LGTBQfobia y la violencia machista en general. Se pueden tomar medidas como aseos y vestuarios sin género, reforzar la visibilidad del profesorado y las familias LGTBQ+ en toda la comunidad escolar, transversalizar los temas LGTBQ+ en el currículo, naturalizar los espacios desde el punto de vista coeducativo **STEILAS** hace tiempo que trabaja en el camino de la pedagogía feminista creando materiales por la Idazkaritza Feminista y el grupo LGTBQ+.



Zaintza bizimodu duin baterako oinarria!

Zaintza oinarrizko behar unibertsala da, eta egun, zaintza etxe barruan dago kokatua. Gero eta merkantilizatuagoa, feminizatuagoa eta arrazializatuagoa dago. Zaintza lanetan dabilzan langileak, gehienetan emakumeak eta migranteak dira, azken hauek maiz atzeritartasun legeak zeharkatzen ditu eta euren egoera prekarizatzen du. Lan aukera askorik ez daukatenez, legeak bertan geratzera behartzen ditu, haien ahotsak isilaraziz.

Gaur egun sistemak duen zaintza plana ezkutukoa da eta hein handian baliogabea ere bai, genero, klase eta arraza arrakala garbia duena.



Gizarte sistemak plan bat behar du zaintzak bermatuta egon daitezen eta zaintzaileen bizi baldintzak duinak izan daitezen, horregatik da guztiz premiazkoa gaia agenda politikoan egotea. Zaintza sistema publiko bat behar dugu, bitarteko ezberdinak erabiliz garatu behar dena; publikoa izateak zaintzarako eskubidea bermatuko duelako. Honetarako unibertsala eta bideragarria izan behar du, merkantilizatu gabea. Horretaz gain, edozein politikatan era transbertsalean egon behar duen gaia da. Izan ere, zaintza zerbitzu eta estruktura konkretu eta garatuz gain, sistemaren antolaketak zuzenean eragiten baitio zaintza antolakuntzari.

Krisi honi aurrez aurre heltzeko Bizitzak Erdigunean mugimenduak ekimen ezberdinak abiatu ditu: 2021ean egindako oinarrizko txostenetik abiatuta Herri Akordio baten garapena, erakundeei eskaera zehatzak eta apelazio zuzena egin dizkie. Horren mugarri eta aldarri, azaroak 30ean deialdi garrantzitsu bat dago: greba feminista orokorra. Mugimendu feministak lideratuta gizarte osora iritsi nahi dugu benetan urgentea den gai honen garrantziaz jabetzeko eta estratu guztietatik pauso sendoak emateko. ■



Para que los cuidados estén garantizados y las trabajadoras tengan unas condiciones laborales dignas, es imprescindible que este tema esté en la agenda política. Necesitamos un sistema de cuidados público: solamente así se garantizará el derecho al cuidado.

¡El 30 de noviembre todas y todos a la huelga!





Proiektuak

Urtero bezala, Eilastasunaren asanbladetan proiektu berriei bide eman diegu. Bileretan abian ditugun proiektuen balorazioa egin dugu, aurten bidalitako dokumentazioa errebisatu, proiektuen koordinatzaileekin hitz egin...ederra izan da arduradunen ahotik proiektuak osasuntsuak direla entzutea!

Aurten bestelako berriak ere izan ditugu: Artea eta Melilla-ko proiektuek ez dute berritzeko proposamenik aurkeztu, beraien esanetan, hasieran zituzten helburuak jada bete dituztelako. Modu honetan, proiektu hauek ez dute funtsaren laguntza jasoko eta bide berriei ekingo diete. Dena den, harremanetan jarraituko dugu, elkarlana polita izan baita.

Horrez gain, martxan ditugun beste 5 proiektuei eskatutako laguntza onartu diegu eta, proiektuak hobetze aldera, hainbat hausnarketa egin ditugu. Hala, barne-funtzionamendurako dokumentuan aldaketa batzuk onartu dira. Elkartasun proiektu berriak ere aurkeztu dira, honako hauek izan dira onartuak:

MUGAK JOSTEN (Gipuzkoa): Migrazioen arloan arloan loan sentsibilizatzeko prestakuntza-ekintza ikaste ikastetxeetan.

CAMBEM (Ginea Bissau): Osasun-agente komunitarioen prestakuntza, indarkeria matxista eta emakumeen eskubideen aldeko borroka.

TXIAPAS (Mexiko): Hezkuntza-sistema autonomoaren indartzea, hezkuntza sustatzaileen prestakuntza 12 Caracol Zapatistetan.

Proiektuekin dugun harremana zuzena da, bitartekaririk gabea, eta erabakiak kide guztiei irekia den urteroko asanbladetan hartzen dira. Funtsa **STEILAS** sindikatuaren diru sarrearen %1az hornitzen da, kide garenon ekarpenez gain.

Eilastasuna **STEILAS** sindikatuaren izate internazionalistaren zutabe garrantzitsua da. Herrialde txirotuek pairatzen duten hezkuntzarako aukerarik eza areagotzen doan bitartean, gure elkartasuna inoiz baino beharrezkoagoa da. Hezkuntza oinarrizko eskubidea da, eta munduan milioika ume eta gazte ezin dira baldintza duinetan heziak izan.

Beren komunitateetan hezkuntzaren bidez transformatzaileak eta hezkidetzaz lantzen duten proposamenak aurrera eramaten ari gara Maputxe herrian, Nepalen, Ugandan, Perun eta Kolonbian. Antolaketa kolektiboa, ahalduntzea, eta oro har, hezkuntzaren bitartez, munduan zehar botereak ekonomikoki baztertuak dituen komunitateetan joan eta etorriko elkarlaguntza sustatzea dugu xede.



Bide berean, Euskal Herriko ikastetxeetan munduko herritarren arteko elkartasuna landu eta gure ikasleengan internazionalismoa sustatzea dugu helburu, hau baita bide bakarra elkartasuna hitza joan eta etorrikoa izan dadin. ■

Eilastasuna web orrian informazio gehiago:

eilastasuna.steilas.eus

Euskararen ofizialtasuna aldarrikatu eta gobernu ituna salatzeko mobilizazioak

Euskararen Defentsarako Sareak deituta, abuztuan zehar euskarafobiaren aurkako aldarrikapez jositako elkarretaratzeak egin dira Nafarroako Parlamentuaren aurrean.

Lehenbizikoa abuztuaren 12an izan zen, Euskararen ofizialtasunaren bidean atzerapauso bat den PSN, Geroa Bai eta Zurekin Nafarroa alderdi politikoek erdietsitako Foru Gobernu itun berria salatzeko.



Hurrengoa berriz, abuztuaren 18an izan zen. Bertan Espainiako Gobernuak Europako erakundeetan galiziera, euskara eta katalana hizkuntza ofizialak izan daitezela eskatu duela gogorarazi eta Nafarroan euskarak ofiziala izan gabe segitzen duela salatu zen, PSN alderdi "aurrerakoi eta progresistaren" jokabide euskarafobikoak agerraraziz. ■



AHTren aurkako bizikleta martxa



Abuztuaren 25ean abiatu zen Irurtzuketik Sakanan eta Goierriin egin nahi dituzten zundaketak salatzeko.

Stop AHT Zundaketak ekimenak deituta, abuztuaren 25, 26 eta 27an bizikleta martxa batek Sakana, Lautada eta Goierri zeharkatu zituen.

Azken hilabetetan, AHTaren Nafarroako korridorea eta Euskal Y-a lotzeko bi aukerak aztertzeke, Sakanan eta Goierriin AHTrako zundaketa geologikoak egiteko, baimen-eskaera ugari egon direla salatu zuen Stop AHT Zundaketak ekimenak. Mobilizaziorako beharra agertu zuen zundaketa horiek berehala gelditu daitezela aldarrikatuz.

Mobilizazioen artean, pasa den abuztuan egindako bizikleta martxaren helburua, "Herritarrek ohartaraztea zundaketa horiek geldiarazteko beharraz eta Goierri, Sakana, Lautada eta gainerako Euskal Herriko AHTaren aurkako arteko harremanak sendotzea" izan zen. ■


Han-hemenka

Transgresioa irakasgai

Hezkuntza askatasunaren praktika gisa

Bell Hooks • 2023, Katakarak

Hitzaurre-egilea: Nora Salbotx Alegria



Arrazakeriak, kapitalismoak, generoak eta hezkuntzak topo egiten duten tokiak aztertu zituen hooksek. 30 liburu baino gehiago argitaratu zituen, baita akademiarentzako lanak ere. Irakaskuntzaz, arrazaz, klaseaz, arteaz, historiaz, sexualitatez, hedabideez eta feminismoaz jardun izan zuen. Literaturari buruz egin zuen doktoretza, Toni Morrisonen lanak aztertu zituen. Bere ikuspegietan eragina izan dute, besteak beste, Sojourner

Truth feministak, Paulo Freire pedagogoak, Gustavo Gutierrez teologoak, Erich Fromm psikologoak, Malcolm X beltz nazionalistak eta Martin Luther King gizarte zibilen aldeko militanteak. ■

Bidean

Aurrera egin nahi duen irakaslearen dekalogoak

Koldo Rabadan Izagirre • 2021, Argia

Ilustratzailea: Maitane Gartziandia Agirrezabala



Badira pasioz irakasten duten maisu-maistrak, ikasleengan jakin mina pizten dakitenak, haur bakoitzaren onena ateratzen asmatzen dutenak.

Koldo Rabadan Izagirre irakasle eta psikopedagogo da horietako bat, eskola ezberdinetan aritu ondoren, azken urteetan Eskola Txikietan irakaskuntzarekin gozaten ari dena.

Dekalogo forma eman die bere bizipenetatik ateratako ondorioei eta umore finez kritika zorrotza egiten dio hezkuntza sistemari eta autokritika irakasleek barneratuta dituzten eguneroko hainbat uste-usteli.

Irakurlearengan emozioak, hausnarketa eta sormenaren jolasa pizten ditu, eta haurrenganako dugun begirada aldatu arazten du, haiengandik ikas dezakegun guztia nabarmenduz. Irakasle zein gurasoei, haurren hezierarekin gehiago gozatzeko gako asko ematen dizkie liburu honek. ■

Juan Larreta Larrea

El compromiso personal y familiar de un maestro represaliado (1881-1936-2023)

Asun Larreta Ayesa • 2023, Pamiela



A comienzos del siglo XX, este maestro pionero vive la confrontación entre el tradicionalismo oligarca-caciquil junto a la Iglesia y militares, y los sectores progresistas para reformar la enseñanza y la sociedad en Navarra y en el Estado. El castigo al que le sometieron los caciques siendo maestro en Izaba (villa del pirineo navarro), nos traslada a La Rioja (Logroño entonces), donde ejercerá como maestro en Treviana, y conoceremos el ambiente socioeconómico, político, movimiento sindical y de la enseñanza en las primeras décadas del siglo XX. Con la proclamación de la II República, llegan las reformas para conseguir una sociedad más igualitaria, y entre ellas, la de la Enseñanza. Pero quienes no estaban dispuestos a que nada cambiara, tras el golpe militar de 1936 reprimen cruelmente y vulneran todos los derechos conseguidos.

Es la dictadura franquista y el nacionalcatolicismo. Ejercen la violencia extrema contra la familia del maestro. Después de asesinado lo depuran, los hijos e hija, desahuciados, padecen torturas, exilio, encierro en el orfanato, suicidio. Y una generosa mujer les acoge en su seno familiar. A través de las vicisitudes de estas dos familias, conocemos sus penurias durante la guerra, posguerra y dictadura; la clandestinidad, el exilio, la Resistencia francesa y la guerra contra los nazis, el reencuentro familiar, y la búsqueda de la verdad, justicia y reparación. Siempre luchando a favor de los Derechos Humanos. Las investigaciones llevadas a cabo durante años han permitido conocer qué ocurrió con la enseñanza y la sociedad, y al maestro Juan Larreta. Seguimos transmitiendo la verdad de los hechos y reclamando la justicia debida. ¡Nunca más y para nadie aquellos horrores! ■



www.steilas.eu



Araba

Manuel Iradier 40 - 01005 **Gasteiz**
☎ 945 14 11 04
araba@steilas.eu

UPV/EHU Arabako Campusa
Ikasgelategia, 204. Bulegoa
01006 **Gasteiz**
☎ 945 01 33 97
steilas-araba@ehu.es

Bizkaia

Jose Maria Eskuza 1, 1 esk. - 48013 **Bilbo**
☎ 944 10 02 98
bizkaia@steilas.eu

UPV/EHU Bizkaiko Campusa
Liburutegiko eraikina 1. solairua
48940 **Leioa (Bizkaia)**
☎ 946 01 24 34 ☎ 946 01 24 35
steilas-bizkaia@ehu.es

Gipuzkoa

Basotxiki 30-34 atz. - 20015 **Donostia**
☎ 943 46 60 00
gipuzkoa@steilas.eu

UPV/EHU Gipuzkoako Campusa
Ignacio M^a Barriola eraikina
Elhuyar Plaza 1 - 20018 **Donostia**
☎ 943 01 84 36 ☎ 943 01 82 81
steilas-gipuzkoa@ehu.es

Nafarroa

Joaquin Beunza, 4-6 behea
31014 **Iruñea**
☎ 948 21 23 55
nafarroa@steilas.eu